

Metrika objektiboen bidez aztertu dira fondo honek inbertitzen duen aktiboen ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-alderdiak.

Kutxabank Fondo Solidarioa IF-ren Jasangarritasun Txostena, beste urrats bat kudeaketa arduratsuan

- **Beste urrats bat Kutxabank Gestion-en helburu estrategikoan: hots, erreferentziazko kudeatzaile bihurtzea sozialki arduratsua den inbertsioan**
- **Txostenaren arabera, % 34koa da fondoak trantsizio energetikoaren alorrean duen inpaktua**
- **Kutxabank Gestion-ek 23.000 milioi eurori baino gehiagori aplikatzen dizkie sozialki arduratsuak diren inbertsio-irizpideak**

2020ko irailaren 16a. Lehenengo jasangarritasun-txostenaren arabera, **Kutxabank Fondo Solidarioa IF-k** ekarpen zuzena egiten die NBEk 2015ean finkatu zituen Garapen Jasangarrirako helburuei. Txostena beste urrats bat da Kutxabank Gestion-en helburu estrategikoan: hau da, erreferentziazko kudeatzaile bihurtzea sozialki arduratsua den inbertsioan.

Txosten horretan, zehatz-mehatz aztertu dira fondoaren inbertsioen jomuga diren enpresak, eta globalki baloratu da haren zorroa ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-alderdietan, lortutako emaitzak eta erreferentzia-indizea erlazionatuta.

Azterketa horren ondorioz, % **34**koa da fondoak **trantsizio energetikoaren** alorrean duen inpaktua; % **33**koa, pertsonen **ahalduntzearen** alorrean soluzioak eskaintzen dituzten konpainietan lortutakoa; % **24**koa, oinarrizko premietan lortutakoa; eta % **9**koa, **ingurune naturalaren** babesean lortutako inpaktu positiboa.

Kutxabank Fondo Solidarioa IF-k inbertitzen du **850 jaulkitzaileran** baino gehiagoren **2.400tik gora baloreetan**, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-faktoreetan kalifikatzen direnak, haien industriari dagokion testuinguruan. Fondoaren ondarea 23 milioi euro ingurukoa da.

Fondo etiko eta solidario hau aitzindaria izan zen 2006an, gardentasuna eta jasangarritasuna bezalako kontzeptuak sartu zituenean inbertsioaren munduan. **15 urteko ibilbidean**, bere tokia aurkitu du merkatuan, eta bide bat urratu du, Ingurumen, Gizarte eta Gobernantza irizpideak Kutxabanken inbertitzeko eta arriskuak kontrolatzeko prozesuetan sartuta.

Gizarte erantzukizuneko irizpideetan oinarrituta inbertitzea, horixe da fondo honen ezaugarri garrantzitsuenetakoa. Haren izaera solidarioaren erakusgarri, Kutxabank Gestion-ek eskuratutako komisioen parte bat ematen die jarduera solidarioak sustatzea helburu duten erakundeei.

Kutxabank Gestion bosgarren kudeatzailea da kudeatutako aktiboen bolumenari dagokionez, eta 2017an sartu zen Nazio Batuen inbertsio arduratsuaren sare globalean. Duela gutxi, Nazio Batuen mende diharduen UNPRI nazioarteko erakundearen auditoretzak **'A' kalifikazioa** eman dio Kutxabank Gestion-i, sozialki arduratsua den inbertsioan duen estrategia eta gobernantzagatik. Kutxabank Gestion-en helburua da sozialki arduratsua den kudeatzaile bihurtzea, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak aplikatuta **kudeatzen dituen aktiboen multzoari: 23.000 milioi** euro baino gehiago. Gainera, formakuntza-plan handinahi bat egin du profil profesional jakin batzuei begira, eta elkarriketa bultzatzen du zuzenean edo zeharka inbertitzen duen konpainiekin. Helburua da eboluzionatzen jarraitzea, 'akziodun arduratsua'-ren kontzeptua erabat garatuko duen integrazio-eredu baterantz.